



**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

**OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

*614/2021 Foru Agindua, azaroaren 15ekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duena.*

VI. KAPITULUA

ORDEZKARITZA PROFESIONALA

*16. artikulua. Kontzeptua.*

1. Profesionaltzat hartuko dira zerga arloko Kudeaketa zerbitzuak ohikotasunez egiten dituzten pertsona edo entitate guztiak, baldin eta alta emanda ageri badira apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onetsita dagoen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren testu bategineko honako talde, epigrafe edo multzoetan: I. Eranskineko Lehen Sekzioaren 811., 812., 834., 841., 842. eta 847. taldeetan edo 849.7 epigrafean, edo Eranskin horretako Bigarren Sekzioaren 721., 722., 723., 726 eta 798. taldeetan edo 73. eta 74. multzoetan.

Gipuzkoatik kanpoko pertsona edo entitateen kasuan, aplikagarri zaien araudian baliokideak diren epigrafeak onartuko dira.

2. Kontrako frogarik ez dagoen artean, ordezkari profesionalak izango dira bi pertsona juridiko edo gehiago ordezkatzeko dituzten pertsonak, haiekin harreman laboral edo sozietariorik ez dutenean, bai eta bost pertsona fisiko edo gehiago ordezkatzeko dituztenak ere, haiekin duten ahaidetasun harremana ez bada odolkidetasunezkoa, laugarren graduraino, edo ezkontza bidezkoa, bigarren graduraino. Arrazoiketarik edo arrazoiketa nahikorik ez badago, ordezkaritza guztien baja izapidetuko da ofizioz. Presuntzio hori ez zaie aplikatuko soilik TicketBAI edukietara mugatzen diren ordezkarietzi.

3. Zerga Kudeaketako profesionalek bitarteko elektronikoak erabili behar dituzte Ogasun eta Finantza Departamentuarekiko harremanetan, eta, horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartua duen sinadura elektronikoa aurreratuko ziurtagiria erabiliko dute.

4. Profesional gisa alta emateko eskaeran pertsona edo entitate profesionalak adierazitako helbide elektronikoa ezin izango da bat etorri haren ordezkatuaren helbide elektronikoekin. Helbide elektronikoen horiek bat datozenean, Departamentuak ordezkatuaren helbide hauek bakan emateko aukera izango du.